

Kultur etxeko obretan planifikazio eza salatu du EH Bilduk

Bertako jarduera mantentzeko alternatiba exigitzen dio EAJren udal gobernuari

Laudio. 2019-1-02. Hasita dauden Kultur etxeko obren planifikazio eza salatu du EH Bilduk, eta bertako jarduera mantentzeko alternatiba exigitzen dio EAJren udal gobernuari. Izan ere, duela aste batzuk, Lamuza parkeko ekipamenduen konponketetan fase berri eta garrantzitsu bati hasiera eman zitzaion, kultur etxea osatzen zuten eraikinen konponketa.

Baina EH Bilduk salatu duenez, EAJ-PSE udal gobernuak ez da behar zen ilusio eta prestakuntzarekin ailegatu. Obrak hasi eta lehenengo egunetan, hainbat arazo egon dira: tailer eta ekintza burutzen zituzten taldeak egun batetik bestera ia abisatu barik bota dituzte, eta haien jarduna normalitatez jarraitzeko ez zaie alternatibarik eman. Ludotekako zerbitzua ere egun batetik bestera desagertu da inolako konponbiderik gabe, gaztetxea ere desalojatzeko arriskuan dago, kultur eragile ugari ere haien etorkizuneko jarduna kolokan ikusten hasiak dira...

“Hilabeteak bagenekiela Kultur etxeko obrak egingo zirela, eta alde zuzenetik denbora egon da obren inguruan hitz egiteko eragile zein erabiltzaileekin. Ez al du udal gobernuak honen inguruan ezer zehatzik pentsatu?” galdetu du EH Bilduko zinegotziak, Nagore Gomarak.

Gomarak salatu duenez, udal gobernuak, Liburutegiaren leku aldaketa saltzeaz eta beste hainbat propaganda egiteaz arduratuago egon da benetako irtenbide eta konponbideak bilatzeaz eta emateaz baino.

“Ezin da Musika etxea erabili obrak irauten duten bitartean, eta Liburutegia oraingoz, bere lekuan utzi?. Zergatik ez da alternatiba planifikatu bat martxan jarri?”, esan du EH Bilduko zinegotziak.

EH Bildu denuncia la falta de planificación den las obras de la Casa de Cultura

Exige al Gobierno Municipal del PNV una alternativa para garantizar la actividad

Laudio. 2019-1-02. EH Bildu denuncia la falta de planificación de las obras de la Casa de Cultura, y exige al gobierno municipal del PNV una alternativa para mantener su actividad. Hace unas semanas se dio inicio a una nueva e importante fase en las reparaciones de los equipamientos del parque Lamuza, el arreglo de los edificios que conformaban la casa de cultura.

Pero EH Bildu denuncia que el gobierno municipal PNV-PSE no ha llegado con la ilusión y formación que se requería. Durante los primeros días del inicio de las obras se han producido diversos problemas: los grupos que realizaban los talleres y actividades han sido expulsados de un día para otro sin apenas avisar y no se les ha dado alternativa para seguir su actividad con normalidad. El servicio de la ludoteca también ha desaparecido de un día para otro sin solución alguna, el gaztetxe corre el riesgo de desalojarse, numerosos agentes culturales empiezan a ver comprometida su actividad futura ...

"Sabíamos desde hace meses que se iban a realizar las obras de la Casa de Cultura y ha habido tiempo previo para hablar de las obras tanto con los agentes como con los usuarios. ¿No ha pensado el gobierno municipal nada concreto al respecto? ", ha preguntado la concejala de eh Bildu, Nagore Gomara.

Gomara ha denunciado que el gobierno municipal ha estado más preocupado por vender el traslado de la Biblioteca y hacer propaganda que por buscar y dar soluciones y soluciones reales.

"¿No se puede utilizar la Casa de Música mientras duren las obras y dejar la Biblioteca por ahora en su sitio? ¿Por qué no se ha puesto en marcha una alternativa planificada?", ha asegurado.